

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Luis Lopez de Aretxaga Agirregabiria

*Arrasate,
Gipuzkoa
(1920)*

Aurkibidea



Biografia



Legution jaio zen. Aita-amak ere legutioarrak zituen, baina amaren osasun txarragatik Luis Arrasatera ekarri zuten senide batzuek, berak zazpi urte zituela. Urtebetez Legution eskolatu zen, eta, gero, Arrasateko abadetxekeo eskolan hasi zen. Luisek ez zekien euskaraz mintzatzen, baina eskolak euskaraz ematen zituzten, eta, eskolako kide guztiak euskaldunak zirenez, berehala ikasi zuen gure hizkuntza. 15 urterekin lanean hasi zen Soroetxe izenarekin ezagutzen zen "Alberdi y Cía" lantegiko bulegoan. Larru zurrategi lanez aparte, esmeril-harriak ere egiten zituzten Soroetxen. 18 urterekin, gerrara eraman zuten 'La Quinta del biberón'en. Sei urteko soldaduska egin ondoren, Zerrajerako bulegoan lanean hasi eta bertan jardun zuen erretiroa hartu zuen arte. Kirolaria eta Kirol Elkartea bultzatzailea izan zen. Hainbat Elkartetako zuzendaritzan parte hartu zuen. 1957. urtean, Erroman Pio XII aita santuaren aurrean ezpata-dantza dantzatu zuen, Arrasatetik joandako talde batean. Aramaioko Josefa Antonia Erizekin ezkondu zen. Seme bi izan zituzten.

Zintak

ARR-148

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-07-06
- **Iraupena:** 78 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Oruesagasti, Ainitze

Pasarteak

1. Legutiotik Arrasatera

- **Erref:** ARR-148/002
- **Iraupena:** 0:04:09. **Hasi:** 00:01:11. **Bukatu:** 00:05:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Urtebetez Legution eskolatu zen, erdaraz. Gurasoek erdaraz hitz egiten zien, nahiz eta haiek euskaldunak izan. Gero, ama hil egin zen, eta osaba-izekoekin Arrasatera joan zen bizitzera. Arrasaten, abadetxeko eskolan hasi zen. Luisek ez zekien euskaraz mintzatzen, baina eskolak euskaraz ematen zituzten, eta eskolako kide guztiak euskaldunak zirenez, berehala ikasi zuen hizkuntza. Dotrina euskaraz ikasteagatik sari bat jaso zuela aipatzen du. Garai hartan, Arrasaten ez omen zen erdaldunik.

2. Mutikotatik Soroetxen lanean hasi

- **Erref:** ARR-148/004
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:06:09. **Bukatu:** 00:06:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

Mutikotatik hasi zen lanean Soroetxe izenarekin ezagutzen zen 'Alberdi y Cía' lantegiko bulegoan. Larru zurrategi lanez aparte, esmeril-harriak ere egiten zituzten Soroetxen. 16 urterekin, Zerrajerako bulegoan lanean hasi eta bertan jardun zuen erretiroa hartu zuen arte.

3. Gerra gertutik bizi

- **Erref:** ARR-148/005
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:06:58. **Bukatu:** 00:09:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Luisek 16 urte zituela etorri zen gerra. Zarugalden muga jarri zuten: Zarugaldetik aurrera "gorriena" zen, eta Zarugaldetik herri aldera Francoren aldekoena (Luis alderdi horretan geratu zen). 18 urte zituela, Francoren tropekin joan zen gerrara. Luisen aita Legutioko udaltzaina zen, eta, gerra denboran, "gorriek" kartzelaratu egin zuten. Anaia bat "gorrien" bandoan zegoen, eta beste anaia bat, berriz, "Gora Euskadi!" esan zuelako Gasteizko

kartzelan sartu eta ez zuten gehiago haren berririk izan. Arrasaten preso hartu eta Oiartzun aldean fusilatu zituzten pertsonei buruz hitz egiten du.

4. 'Alberdi y Cía' lantegiko kontuak

- **Erref:** ARR-148/007
- **Iraupena:** 0:03:43. **Hasi:** 00:10:26. **Bukatu:** 00:14:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

'Alberdi y Cía' lantegian (Soroetxe izenarekin ezagutzen zen) zer lan egiten ziren azaltzen du: larru zurrategi lanak, esmeril-harriak, alpargatak... Leonardo Alberdi zen lantegiko nagusia. Esmeril-harriarekin langile batek izandako lan-istripu bati buruzko azalpenak ematen ditu.

5. 'La Quinta del Biberón'

- **Erref:** ARR-148/010
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:16:10. **Bukatu:** 00:18:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

18 urte zituela, soldadutzarako deitu zuten Luis: 'La Quinta del Biberón' ziren beraiek. Gerrara deitutako soldadu gazteenak zirelako jaso zuten deitura hori. Gerran nondik nora ibili zen azaltzen du: Gasteiztik Nafarroa aldera, handik Guadalajarara... 18 urtetik 24 urtera bitarteko sei urteak "denbora galdua" izan zirela dio Luisek; etxeratzeko baimena ematen zien, baina behin baino gehiagotan deitzen zien gerrara joateko.

6. Soldadu denboran, eskribiente

- **Erref:** ARR-148/012
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:18:32. **Bukatu:** 00:21:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerrako administrazioa

Laburpena:

Soldadu denboran, nondik nora ibili zen azaltzen du. Gasteizen zegoela, Burgostik deitu zioten "Subinspección General de la Sexta Región"en eskribiente aritzeko. Traje zahar batekin bidali zuten Burgosera, eta, handik, berriz ere Gasteizera bidali zuten "Burgosera traje dezenteaz joateko" agiduekin. Logroñon egon zen denboran, lan ordezkaritzan aritu zen lanean; jatorduak, kuartelean egiten zituen.

7. Guadalajaran, gerra bukatu

- **Erref:** ARR-148/013
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:21:00. **Bukatu:** 00:22:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerrako administrazioa

Laburpena:

Gerra denborako kontuak. Luis soldadu denboran eskribiente lanetan ibili zen batean eta bestean. Soldadu gisa Guadalajarara bidali zuten, baina bera iristerako bukatu omen zen gerra. Behin Guadalajaran, batetik bestera ibili ziren lurak okupatzen. Luis bi aldiz egon zen soldadu: lehenengo, gerra zibilerako deitu zuten; eta bigarren aldian, II. Mundu Gerrarako.

8. Erromeriak, musika-banda eta dantza-eskea

- **Erref:** ARR-148/017
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:25:20. **Bukatu:** 00:28:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Gazte denboran, Garagartzako eta Santa Agedako erromerietara joan ohi zen Luis. Domeka goizetan, musika-bandak kalejira jotzen zuen kalean; arratsaldetan, Otxoa danbolinjolea egoten zen lehenengo, eta, gero, musika-bandak jotzen zuen. Gazteak, pieza pare bat dantza egin eta estazioraino joaten ziren paseoan. Gero, plazara bueltatzen ziren dantzara. Plazako dantza-eskea nola izaten zen kontatzen du. Arrasateko mutilek ohitura handia zuten Bergarara joateko andregai bila; trenez egiten zuten joan-etorria.

9. Trenak, geltokiak eta ibilbideak

- **Erref:** ARR-148/018
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:28:08. **Bukatu:** 00:31:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

Lehenengo, ikatzezko trena zegoen. Eta Francoren denboran, tren elektrikoa jarri zuten. Trenak, Maltzagan egiten zuen Donostiara edota Bilbora joateko gurutzaketa. Mekolalden, trenek Zumarragarako eta Gasteizerako norabidea har hartzen zuten. Tren-geltokiak eta ibilbideak zein ziren azaltzen du.

10. Hainbat egunkaritako korrespontsal

- **Erref:** ARR-148/021
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:31:54. **Bukatu:** 00:33:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

<p>Hiru-lau egunkaritako korrespontsala izan da Luis: Pensamiento Alavés eta El Diario Vasco egunkarietarako kronikak idatzi izan ditu, esaterako. La Voz de España egunkariko korrespontsal izateko proposamena jaso zuen, baina uko egin zion. Orri osoko hainbat kirol-kronika idatzi zituen Pensamiento Alavés egunkarirako.</p>

11. Iturriotz kalea

- **Erref:** ARR-148/025
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:38:43. **Bukatu:** 00:40:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

Laburpena:

Luis Arrasatera bizitzera joan zenean, Jose Maria Resusta kalean bizi zen, abadetxea baino pixka bat beheraxeago. Gaur egun, Iturriotz izena du kale horrek, eta gerra aurretik ere hala zela dio. Kontzezioko iturriko ur hotzagatik hartu omen zuen kaleak izen hori.

12. 1934ko matxinada eta tiroketak I

- **Erref:** ARR-148/027
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:40:54. **Bukatu:** 00:43:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

1934ko matxinada. Gizon bat tiroka hasi eta Luisen etxeko leiho ertze batean tiro batek jo zuela kontatzen du. Antza, etxeko teilatutik iraultzaileengandik ihesean zihoan gizon bati zuzenduta zeuden tiroak (Zerrajerako ingeniaria bera). Matxinada hartan, Marcelino Oreja eta Dagoberto Resusta enpresariak hil zituzten. Iluntze aldera iritsi siren Gasteiztik tropak Arrasatera, eta "reboltasoen" ihes egin zuten mendi aldera.

13. 1934ko matxinada eta tiroketak II

- **Erref:** ARR-148/031
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:48:49. **Bukatu:** 00:50:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika
- Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak

Laburpena:

1934ko matxinadari buruzko azalpenak. Iraultzaileek preso hartu zituzten Marcelino Oreja, Dagoberto Resusta eta Rikardo Azkoaga 'Casa del Pueblo'n. Gasteizko armako tropak Arrasatera heldu zirenean, iraultzaileek hiru presoak askatu eta atzetik tirokatu zituztela kontatzen du Luisek. Azkoagak ihes egitea lortu zuen.

14. Anaia atxilotuta eraman, eta gehiago jakin ez

- **Erref:** ARR-148/036
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:58:39. **Bukatu:** 01:01:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Luisen aita Legutioko udaltzaina zen, eta, gerra denboran, "gorriek" kartzelaratu egin zuten. Anaia bat "gorrien" bandoan zegoen, eta beste anaia bat, berriz, "Gora Euskadi!" esan zuelako frankistek Gasteizko kartzelan sartu zuten, eta ez zuten gehiago haren berririk izan. Frankistak Legution sartu zirenean, herriari 'Baluarte Heróico de Álava' izendapena eman ziotela dio.

15. Aita santuari ezpata-dantza egindakoa

- **Erref:** ARR-148/040
- **Iraupena:** 0:05:04. **Hasi:** 01:04:06. **Bukatu:** 01:09:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

1932an, Donostian ospatutako Aberri Egunean, ezpata-dantza dantzatu zuen Luisek. 1957an, Pio XII aita santuaren aurrean ezpata-dantza dantzatu zuen Erroman, Arrasateko Acci Catlica taldearekin joanda. Erroman organojole zegoen Olatxo agustindar oñtiarekin ibili ziren.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-01

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com